



OSASUN SAILA

Osasuneko sailburuordetza
Osasun Publikoaren eta Adikzioen
zuzendaria

DEPARTAMENTO DE SALUD

Viceconsejería de Salud
Dirección de Salud Pública y Adicciones

EAEko Haurren Txertaketa Egutegian aldaketak izango dira 2017an

Txertaketarako Aholku Batzordeari galdetu ondoren eta hark emandako gomendioak aztertu ondoren, umeak txertatzeko 2017ko egutegian aldaketa batzuk egitea erabaki du Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak. Difteria, Tetanos, kukutxeztul, B Hepatitis eta b motako Haemophilus influenzae delakoaren aurkako lehen txertatzean izango dira aldaketok, hau da, haurren lehen sei hilabeteetan bi dosi beharko dira, eta ez hiru. Oroitzapen-dosi goiztiar bat ere emango da.

3+1 eskemaren orde (2, 4 eta 6 hilabeterekin, DTPa-VPI-VHB+Hib; eta, 18 hilabeterekin, DTPa-VPI+Hib) **2+1 eskema erabiliko da**, DTPa-VPI-VHB+Hib antigenoak dauzkaten txerto hexabalenteak erabiliz 2, 4 eta 11 hilabeterekin. Hau da, 6. hileko dosia ezabatu, eta lehen txertaketan bi dosi erabiliko dira, eta beste bat oroitzapeneko, baina umearen 11. hilabetera aurreraturik, 18.era zain egon gabe.

Aurrerantzean, honela egingo da lehen txertatzea:

- **Lehenengo dosia, 2 hilabeterekin.**
- **Bigarren dosia, 4 hilabeterekin.**
- **Hirugarren dosia, 11 hilabeterekin.**

Helburua da bularreko haurrari ahalik eta zitzadarik gutxien egitea, baina babesik galdu gabe. Izan ere, egindako saiakera klinikoek erakusten dutenez, txerto hexabalenteak erabiliz lortzen den immunitatea antzekoa da 2+1 eskema edo 3+1 eskema erabilita.

Txertaketa-modu berri hori **2017ko urtarrilaren 1etik aurrera** jaio direnentzat izango da indarrean.

2017ko urtarrilaren 1a baino lehenago jaio direnak lehen bezala txertatuko dira (3+1): 2, 4, 6 hilabeterekin, DTPa-VPI-VHB+Hib; eta, 18 hilabeterekin, DTPa-VPI+Hib.

2+1 erara txertatutako umeak 6 urtetara iristen direnean, DTPa txertoa jarriko zaie, poliomieltisaren aurkako txertoaren dosi batekin batera (VPI).

3+1 erara txertatutako umei, berriz, sei urterekin dTPa dosi bat emango zaie. Horniketarako batzuk izan ditugu eta horregatik ezin izan dugu dosi hori garaiz eman, baina egoera normaltasunera itzuli bezain azkar ekingo diogu berriro.

Egutegi berri honek dakartzan aldaketak 2017ko martxoaren 1etik aurrera egongo dira indarrean, aurtengo jaio berriek bi hilabete betetzen dituztenean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urtarrilaren 16a

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza